


# Nafar **k**aria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko irailaren 16 / IV. urtea / 144. zenbakia

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA





## Kairoko populazio piramideak

**B**iztanleriaren etorkizuna ez dago soilik Kairon berri den Populazio eta Garapenari buruzko III. Konferentziaren adierazpenetan eta azken agiriaren baitan, baina badu zerikusi zuzena, dudarik gabe. Esanguratsua izan da oso, bertan zer eta nola tratatu duten aztertzea baina. Askoren amorraziorako, eta beste hainbesteren gozamenerako —hemen ez da inor soberatzen, inposaketa demografikorik ez!—, ikusi da garbi noraino iristen diren Vaticano eta Erregimen Islamikoko Estatu zenbaiten hatzapar luzeak; bereziki, eta gure inguru kulturalari dagokionean, lehenenak. Superpopulazio eta herrialde txiroen (zanpatuen) garapen ekonomikoaren funtsezko alorretan egin beharreko lanez eztabaidatu eta neurri zehatzak hartzeko partez, hara non, sotana iluneko barrazki-  
loek eta bare bizardunek, a ze pare!, hartara bultzaturik, abortoz eta ezkontzaz landako sexu harremanez jardun behar izan duten, neurritz kanpoko eztabaida antzuetan, Nazio Batuen Erakundeko 182 ordezkari-  
rik.

Eztabaidagarri behar du izan guztionatik ea zertan datzan populazio politika egoki bat, nola jokatuko behar duen Iparrak Hegoaldeko herrialdeen garapena zuzpertzeko, zer egin herri hauen emakumeak beren buruaren jabe izan daitezen eta gizonarekin batera libreki erabaki dezaten zenbat seme-alaba eduki nahi dituzten...dena eztabaidatzeko da baina, sinplēkerian eta erretolikan jausi gabe, hein handi batean, Hierarkia Erligiosoen egin duten erara.

Vaticanoko ordezkariak pentsatu bai baina ozen esan ez duena zera litzateke nire aburuz: «aharik eta zorioneko justiziak bere erroak mundu zeken honetan zabaldu arte, jarrai dezatela Hirugarren Munduko emakumeek haurrik erditzen, biologiarenean lege naturalek hola agintzen dutelako, zeren emakumea edo haurra, edo biak hiltzen badira behar hainako baliabideak ez izateagatik, edota geroan, kondenatua badaude zoritzarreko bizimodua eramatera zer jakiterik ez edukitzeagatik, oinarriaren ordainez, segurtatuta izango baitute zerurako bidea, beratu delako eta ez besterik, bizi izatearen funts bakarra!».

Modernitateak porrot egin duela dioteneak badute Kairokoaren ondortik beste atxikigailu bat horrela pentsatzen segitzeko. Biba Voltaire!



Erronkarikoen Artzainbidea, Murelu-Hautsitik Zaraitzurako Artzainbidea, Probin-

tzietako Artzainbidea... Nafarroa artzainbidez josita dago. Artzainbide hauetako batzuetatik jaitsiko dira, hain zuzen ere, igande bitartean Nafarroako hainbat lekutako artzainak. Artalde hartu eta oinez kilometroak eta kilometroak egingo dituzte ardiak Bardeetara eramateko. Bertan igaroko dituzte datozen bederatzi hilabeteak. Ramon Compains da artzain horietako bat. Otsagitik abiatu zen astearte goizean eta igandean Bardeetan egongo da ardiak zelaietan sartzeko prest.

## Artzainbideak bizirik

### ERAKUSKETAK



**Patxi Buldain**, Jose Urdin, Naxo Barberena, Koldo Agarraberes, Arturo Navaz, Pablo Juarros, Oskar Paternain eta Carlos Servet artisten 'Defiguracion' izeneko erakusketa zabalduko da heldu den astelehenean, irailak 19, Irurtzongo Kultur Etxean. Udalak antolatutako, hilaren 26a arte iraunen du.

**Maite Unzurrunzaga** margolariaren lanak ikusgai daude Iruñean, bertako Aurrezki Kutxa Munizipalak Rodezno Konte kalean duen aretoan. Irailaren 25a arte iraunen du zabalik eta ikus-teko ordutegia hauxe da: lan egunetan, 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan g12.30etatik 14.00etara.

### MUSIKA



'Urtz' musika taldearen kontzertua izanen da heldu den aste-ko ostegunean, irailak 22, Uhar-teko plazan. Bertako jaiak direla eta, herriko gazte batzuk antolatu dute, urtero bezala, musika saio hau. Gaueko 23.30etan hasi eta ordu baten artean luzatuko da.

'Los Dinosaurios' eta 'Luz de cruce' musika taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, irailak 16, Atarrabiako udaltxe plazan. Herriko udalak antolatuta, gaueko 10.30etan hasiko da.

'Sttretty Trinity' Jamaikako 'reggae' taldea eta 'Iskanbila' taldek kontzertua eskainiko dute gaur gauean Altsasuko gazte-txean, herriko jaien barruan antolatu duten programaren barruan. Gauerdian hasiko da, beste animazio talde batzuekin batera. Bihar, bestalde, 'Neurastenia' eta 'Corazon de sapo' taldeen kontzertua izanen da, ordu berean.

### BESTELAKOAK



**Sebastian Lizaso** eta Joxe Agirre bertsolarien saioa izanen da igande honetan, irailak 18, Arruitz herrian. Bertako jaiak direla eta, herriko tabernan abestuko dute, bertso-afari batean, gaueko 22.00etatik aurrera.

**Antzerki Teknika** ikasteko ikastaro bat antolatu du datozen hiru hilabetetarako Arangurengo Udalak. Irailaren 24an hasita, larunbatero arratsaldeko 17.00etatik 20.00etara emanen da, abenduaren 10a arte. Mutiloa-Behitiko polikiroldegian burutuko da. Matrikula 500 pezetakoa da, eta datuak bailarako Animatzaille Sozio-Kulturalari eman behar zaizkio.

## NAFAR KRONIKA

ANA UNANUE

### Aizpunek ez daki, baina...

Nafarroa-Euskal Autonomi Elkarte auzia galdua dauka. Bategitearen aldekoek estrategia makur bezain isila tajutu zuten duela urte batzuk, Aralartik eta Bidasoatik behera Sabino Aranaren jarraitzaileak uste baino gutxiago zirela ohartzean,

tute Nafarroa errekonkistatzeko.

Gipuzkoarrak dira, dudarik gabe, mugimendu honen abangoardia eta beraien jatorria ezkututzen abilenak. 'La Roncalesa-tik' jaitsi orduko «erran», «bertze» eta «kuarto gutti-ka» hasten dira ozenki,

tak. Haatik, Ipar Irlandako errepublikar katolikoei abantaila handia dute Nafarroako abertzaleen aldean. Han ongi kalkulatu dute Aita Santuari eta beraien jaiotza tasari esker 2010. urterako gehiengo izango direla. Denbora beraien alde ari da, he-



eta fin asko ari dira, itzalean baina atsedetik gabe. «Mahoma mendira ez badoa, mendia joango da Mahomarengana», pentsatu zuten horiek eta hala ari dira.

Ez dira asteburuko zizadikoak, ez, afera hori baino serioagoa da. Hauek ez dute perretxikoak biltzeko otxorik ekartzen eskuan, kontratu bat baizik, AEKren, Ikastolen Elkartearen eta antzeko erakundeen babes bati-

Nafarroa jatorri izena nork lehenago lortuko. Ez harritu, beraz, ezagutzen duzun nafar peto-peto hori, Lodosako piperrak baino nafarragoa den hori, tolosarra, donostiarra edo beizamarra dela esaten badizute, egia izango da eta.

Nafarroa eta EAE noizbait integratuko balira, lehenengo Euskal Herriko Ulsterra bihurtuko litzatekeela idatzi du duela gutxi Patxo Unzue-

men ez bezala.

Hemengo abertzaleek Unai Paroten —barkatu, barkatu, nahigabe atera zait— aholkuak jarraitzeko asmorik ez dutenez, ez dago ugalketan konfiatzerik. Beraz, hain modako dauden trasbaseak dira aukera bakarra eta gipuzkoarrak aspaldi jabetu ziren horretaz. Eta ez dago informazio iturriak aipatu beharrik, hau izenpetzen duena SS-91567. Infiltratua da eta.

### ASTEKO PERTSONAIK



**Jaime Ignacio del Burgo**  
UPNko diputatua

Jaime Ignacio del Burgo UPN alderdiko diputatua. 'Soñando con la paz. Violencia terrorista y nacionalismo vasco' liburua aurkeztu zuen asteartean Madrilén. Jaime Ignacio Del Burgoren hitzetan, bere liburua «egiazko gogoeta desmitifikatzailea da». Liburuaren aurkezpenean Jose Maria Aznar PP alderdiko burua ere egon zen, berak idatzi baitu hitzaurrea. UPNko diputatua, besteak beste, «Espainiako Estata eta Euskal Herriaren arteko gatazkarik ez» dagoela erran zuen Madrilén, «euskal herritarren artekoa baizik». Bestalde, ETako preso politikoei buruz, «zigorra osorik bete beharko» luketela azaldu zuen UPNko diputatua, «bergizarteratzea ez baita eskubide konstituzionala».



**Jose Luis Beaumont**  
Abokatua

Aste honetan epaitu dute Jose Luis Beaumont, Itoizko Koordinakundeko kidea, 'agintarien aurkako atentatua' izeneko delituagatik. Gertaera joan den urtekoa da, Itoizko kanpaldian Poliziarekin istiluak gertatu zireneko. Fiskaltzak prozesuarekin jarraitu eta urtebeteko kartzela zigorra eskatu du Beaumontentzat, ustez agenteei harririk bota eta irain egin zirelako. Ez da hori epaituko duten bakarra, Patxi Gorraiz eta Daniel Unziti Koordinakundeko kideak ere urriaren 2an epaituko baitituzte. Zigorrak, kasu honetan, gogorragoak dira: bi urte Gorraizen kontra eta hiru Unzitiaren aurka. Beraiek garbi dute hau guztia «koordinakundea kriminalizatzeko asmoarekin» egin dutela, «gu kaltetuak izan arren errudun bezala tratatzen gaituzte eta».

### AHAZTU GABE!

#### JAIK



**Orbako eguna** ospatuko dute igandean bertako herritarrek. Hala ere, herria girotu asmoz, azken egunetan jada, hainbat ekitaldi burutu dituzte. Bihar ere, jai eguna izango dute bailara osoan, 'Korrika Orba 94' goizeko 8etatik aurrera bertako txoko guztiak bisitatuko baititu. Hala ere, berez, igandea izango da Orbako jai egun nagusia. Azken urteetan, gero eta nabariagoa da bailarako gazteen partehartzea eta Orbako Eguna benetako besta egun bihurtu da guztientzat. Igandean goizeko 11etan ezkilhotsak emango dio hasiera Orbako Egunari. Eguerdian, Katalaingo ermitan meza izango da. Bertan bilduko dira bailara osatzen duten hogeitaherriko biztanleak, baita Nafarroako beste zenbait lekutako bisitariak, Tafalla eta Iruñekoak batez ere. Izan ere, betidanik izan da Katalaingo ermita herritar guztientzako biltokia. Ondoren, soka-tira txapelketa egingo dute kanpalkaldean eta Orbako Egunari amaiera emateko, herri bazkaria izango da Barasoainen. Bazkarian zehar Zintzarri txarangak alaituko du giroa.

### jenero xumekoak

#### Berdinketak (Eta 3)

Herioak harrera bera eskaintzen die bai auzartari bai koldarrari. Lehenak hoberriarri aipamen ederrak ditu, baina ez du ez betarik ez sasoirik irakurtzeko.

ELIAS SARASA - ERRO

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

#### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



### Malerreka

Navarrerriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

# Merkataritza mundua euskalduntzeko lanean

DONEZTEBE

Euskal Herriko beste leku batzuetan egin den bezala, Malerrekako Mankomunitateak antolatatu du komertzio mundua euskalduntzeko egitasmoa, Siadecoren irizpideak segituz. Heldu den astean jarriko da martxan, eta Malerrekako establezimendu komertzial guztiak bisitatuko dira: ostatuak, jantxidendak, zapatatendak, zerbitzuak, akademiak eta abar.

Egitasmo honek hiru helburu lortu nahi ditu. Batetik, bizitza sozialean horren garrantzitsuak diren denda eta zerbitzuetan euskararen presentzia handitzea, mintzatu nahiz idatzian. Bigarrenik, langileen euskara maila hobetzea, eta azkenik, barne nahiz kanpo harremanak euskaraz egiten dituen establezimendututua sortzea.

Bide batez, gainera, ezinbesteko informazioa jasoko da: denda bakoitzeko euskararen egoerari buruzko datu zehatzak eta hizkuntz normalizazioaren inguruko beharrak eta aukerak. Edozein modutan, hagitx garrantzitsua da gizarte bizitzan pisu berezia duten jarduerak euskalduntzea, irakaskuntzaren bidez haur eta gazteen artean lortu diren emaitzak indartzeko. Ezin da ahantzi merkataritzako hainbat alorrek harreman zuzena dutela haur eta gazteen munduarekin.

Metodologiaren aldetik, merkataritza zentro guztiak bisitatu dira, eta bisita hauek bi fase-



Merkataritza euskalduntzeko egitasmoa astelehenean hasiko da.

XOUSE SIMAL

tan egingo dira. Lehendabizikoan, egitasmoaren aurkezpena eta datu bilketa izango da, urrats hauekin: egitasmoaren helburuak aurkeztu, datuak bildu, beharrak eta oztopoak identifikatu, itzuli beharreko idazkiak jaso, finantza erakundeetan euskarazko harreman-sarea osatzeko dauden aukerak aztertu.

Bigarren fasean, eskaintza zehatzen proposamena eta konpromezuen onarpena izanen da. Fase honetan, eta aurrekoan bildutako informazioan oinarrituta, establezimendu bakoitzarentzat egoki jotzen diren proposame-

nak aurkeztuko dira. Dendariak onar ditzakeen eskaintzen baldintzak eta hartu nahi dituen konpromezu zehatzak hitzarmen batean bilduko dira. Datuak eta hitzarmenak jaso ondoren, Siadecok aurrera begira jarraitu beharreko lan ardatzen zehaztapena egingen du.

Lehen faseak irailaren 19tik urriaren 8ra arte iraunen du eta bigarrenak urriaren 24tik azaroaren 11ra. Hitzarmenak jaso ondoren, eta lortutako emaitzen arabera, martxan jarri beharreko eskaintzak 1995eko urtarrilean hasiko lirateke. Mankomunita-

teak dendariei zuzenduko dizkien eskaintza nagusiak hiru dira: itzulpen zerbitzua, euskarazko klaseak eta hizkuntz aholkularitza euskarazko harreman sarearen antolaketari begira.

### Aranguren

## Ez da jakirik falta izango festetan

ARANGUREN

Udaren hondar hotz honetan, iruindarrek gertu-gertu izanen dute herrietako jaien artean azkenetako bat gozatzeko aukera, gaurtik igandera arte arangurendarrek euren festak ospatuko dituzte eta. Ohiturari jarraiki, nahi adina dantza egiteko aukera izanen da; kasu honetan Modesto akordeoilari arantzarrak, Iruñea Band-ek, Patxi Iriarte soinu-jole aetzak eta Tiburon dantza taldeak markatutako erritmoan.

Halaber, zer janik ere izanen da. Gaur iluntzeko seietan zerrikiz eta piperrez osaturiko sorgin afaria izanen da. Bihar eguerdian saiheski jatea izanen da, eta iluntzeko seietan Iruñeko axuria txilindron pusketan sorgin afarian dastatzeko aukera. Azkenik igande eguerdian otamena izanen da, gazta, zingerra, urdaia, ziztorra, pikamenduak, ogia eta suerte guztietako ardoak.

Jaien antolakuntzan buru-belarri jo eta fuego aritu den Enrikeren dioenez, «honat ailegatu ezkerro, aisa izain duzie gibelego bidea egitea, Aranguren Iruñea baino garaia izanki. Zirriketan beheiti edo bertze gise, Aranguren erdaraz erranik 'rodando pabajo'».



tara joatear geundelarik —Bai, historiaurrean Antoniuttin jartzen zituzten barrakak— Kaldereriako Suara eraman gintuen. Egia esanda, kasik ez ginen enteratu, kalimotxoarekin lehen harremanetan genbiltzalarik, oraindik ez baikenekien behar bezain ongi zein zen anabasaren dosi hilgarria.

Tabernara sartu bezain pronto, Mikel, Jhony Wismuller-en trebeziak, Burning taldearen omezez paretan eskegita zegoen eskulturako kateak heldu, eta tulin-talan kolunpiatzen hasi zen. Gure harridurarako inork ez zuen labanik atera. Inork ez gintuen jipoitu. Modu horretan ikasi genuen Caldereria = Navarrerria = Makarrerria ekuazioa ez zela zuzena. Mikelek, geroago, beste hainbat gauza erakutsiko zizkigun. Azken bolada honetan, eta besteak beste, kontsekuente izatea zer den. Iruñeko espetxean preso zen orain gutxi arte, eta joan den astean Teruelgo kartzelara eraman zuten. Bihotzeko minak jota, horregatik ari naiz ni, malenkoniatsu, historiaurrea goiti eta behiti.

### Aurizberri

## Iganderako ekitaldi ugari antolatu da

IRUNEA

Erroibarko Udalak antolatuta, ekitaldi ugari izango dira igandean Aurizberriko Eneko-Txuri zelaian. Ganadu feria egongo da, besteak beste. Zaldi txapelketa ikusteko aukera izango dute Aurizberri bildutakoek, baita ardi latxen txapelketa ere. Horretaz gain, Pirinioetako behien txapelketa eta enkantea izango dira.

Bestalde, lurreko produktuen erakusketa izango da, Nafarroako produktu ezberdinek parte hartuko dutela. Nafarroako artisauek ere igandean Aurizberri egoteko gonbita jaso dute. Azkenik, gazta txapelketa egingo dute igandeko ekitaldi hauek guztiak biribiltzeko. Nafarroa osoko gaztangileak egongo dira bertan, eta Pedro Legazek gazta egiteko antzinako modua erakutsiko du.



Ganadu feria egingo dute igandean Aurizberri.

EDURNE KOCH



**I**gandean Bardeetako zelaian 70.000 ardi inguru sartuko dira. Ardien sartze honek gero eta jende gehiago erakartzen du baina bertara ailegatzen diren artzaintzat lana baino ez da. Nafarroako artzainbideetatik barna ailegatuko dira Bardeetara eta bertan geratuko dira negua bitartean, udaberria ailegatu arte. Benetako nomadak, ehun kilometro inguru ibiliko dira batzuk Bardeetara ailegatzeko.

## Artzainbide zaharrak

EDURNE ELIZONDO / OTSAGI

Erronkari eta Zaraitzuko artzainak Bardeetara abiatu dira jada, Nafarroan dauden altxonbideetan zehar. Astebete inguruko bidaia egingo dute artzain hauek, artaldeek negua Bardeetan igaro ahal izateko. Igandean bertako zaindariak airera tiro bat bota eta Bardeetako zelaian sartuko dira bertan bildutako artzain guztiak euren ardiekin. Uzta egin ondoren lurtean geratutako garia jan ahal izango dute ardiek eta datorren urteko maiatzara arte ez dira jaioterrira itzuliko.

Bidaia hau urtero egiten dute Erronkari eta Zaraitzuko artzainek, baita Nafarroako beste zenbait herritakoek ere. Negua Erriberan igarota, udaberrian itzuliko dira herrira, altxonbideetan zehar gora.

Zaraitzuko artzain gehienak irailan abiatzen dira Bardeetara. Zaraitzukoak Murelu-Hautsitik Zaraitzurako Artzainbidean barna eta inguruan dauden beste arribide txikiagoetatik joaten dira. Erronkarikoak, berriz, Erronkarikoen Artzainbideetik. Hala ere, 200 edo 300 ardi inguru dituzten artzain batzuk bertan gelditzen dira, ardiak elikatzeko zelairik baldin badute behintzat. Beste askok, ordea, herri lurak erabiltzen dituzte eta iraila ailegatu bezain pronto, 18an Bardeetan egon ahal izateko bidaia prestatzen hasten dira. Bost edo sei eguneko ibilaldia izango da. Oinez, argitu bezain pronto abiatuko dira artzain eta ardiak, ilundu arte, Nafarroa ia goitik behera zeharkatzen duten arribideetatik barna ibiliko dira. Erronkari eta Nafarroako beste zenbait herritatik ere abiatuko dira artzainak Bardeetarantz.

Ramon Compains Otsagikoa da eta, aita eta anaia bezala, betidanik izan da artzaina. Aitarekin egin zituen lehen bidaia arribideetan zehar eta bakarrik gero. Rasa deritzon arrazako ia mila ardi ditu eta guztiak Bardeetako zelaian sartuko ditu igandean bertara ailegatutako gainontzeko artzainek bezala. Zaindariak airera botatuko tiroaren hotsak emango dio hasiera gero eta jende gehiago erakartzen duen ardien sarrera honi.

Ramon Compains asteartean abiatu zen goizeko zazpiak aldera, Patxi eta Pello bere bi lagunekin batera. Orhi mendiko

magalean zain zituen ardiak eta Abodiko mendizerran barna, Udi tontorrera igo ondoren, Erremendiara eraman zituen lo egitera ibilbideko lehen egunean.

Abodiko mendizerran haizea izotza bezain hotza bazen ere, euririk ez zuen egin eta arazorik gabe amaitu zuen lehen etapa Otsagiko artzainak. Hala ere, uda honetako lehortea dela eta, jan eta edan ahal izateko, hamaika komeria izango dituzte ardiek. «Zelai guztiak lehor-lehorrak daude, ardiek ezin dute ia ezer jan, ezta edan ere. Nik ez dut dirajoiertira itzuliko» azaldu du Ramonek.

Ramonek arkumeak saldu ahal izateko ditu ardiak. Aurten iaz baino hobeto ordaintzen dute arkume txikia eta kontent ageri da artzaina. «Prezioa tainaren arabera da baina, gutxi gora-behera, 8.000 pezeta inguru ordainduko dizkigute arkume txikiengatik. 24 kilo ingurukoengatik, bestalde, 9.500-10.000 inguru. Hala ere, arkume txikiak ardiek emandako esnea baino ez dute edaten, beraz, mota biekian antzera irabazten dugu».

Bestalde, ardien ile-moztearekin diru asko galtzen dutela nabarmendu du artzainak. «Gero eta garestiago da eta artilearekin ez dugu dirurik irabazten. Artilearekin 30.000 pezeta irabazten badugu, moztailerei 400.000 ordaindu behar diegu».

**ATZOKOAK ETA GAURKOAK**

Ardiek jaten duten bitartean, Ramonek antzinako garaiak gogoratzen ditu. «Gure aita artzaina zenean Bardeetara joaten zen baina batzutan, 29 eguneko bidaia egin ez, Aragoi eta Katalunia aldera ere abiatzen zen. Garai hartan hamabost bat artalde ateratzen omen zen Otsagitik urtero». Gaur egun, ordea, gero eta artzain gutxiago dago bere ustez, «lau bat artzain baino ez gera. Otsagitik lau edo bost artalde besterik ez da ateratzen. Gu gara artzain gazteenak eta dagoeneko zahartuta gaude». Horrekin batera, arribideen galteza aipatzen du Ramon Compainsek. «Ardibide batzuetatik ez da ia inor pasatzen eta euren egoera tamalgarria da. Bestelakoak ere ez dituzte zaintzen eta batzutan, bidea asko estutzen dute alboko sasiek». Ardibideen egoera hobetu eta galtzen ari direnak berreskuratzeko asmoz,




tzen du Ramonek: «behin, ur putzu txiki bat ikusi zuten ardiek maldan behera eta bertara joan ziren edateko asmoz. Atzekoek,

berriz, aurrekoen gaineratik pasatu behar izan zuten eta ardi batzuk zapatak galdu egin nituen eta egun hartako ibilbidea oinutsik,

**R**amonek ez bezala, ardiak Bardeetara kamioiekin eramanen dituzten artzainak ere badira. Ramonen ustez, «oso eroso da hori baina baita garestia ere. Ni-re ardiak eramateko hiru edo lau bidaia egin beharko nituzke eta bakoitzak 60.000 edo 70.000 pezeta kostatuko litzaidake. Oinez eramatea merezi du. Ardiek ez dute nahi adina jaten beti baina merkeagoa da».

**Negua igarotzeko asmotan, Bardeetara iritsiko dira artzainak beren ardiekin. 70.000 ardi inguru izango dira Bardeetako zelai zabaletan, Nafarroako artzainbideak zeharkatu ondoren.**



Zenbait artzainek ehun kilometro egiten dituzte oinez Bardeetara iristeko.

## Ardibideen lagunak

E.E. / OTSAGI

Bardeak direla eta ez direla, historian zehar istilu franko izan dira nekazarien eta abeltzainen artean. Hala ere, Erronkari eta Zaraitzuko artzainek antzinatek erabiltzen dituzte bertako zelaia ardentzat. Artzainbideetan barna Erribera aldera jaitsi eta bertako zelaian uzta egin ondoren geratutako garia jaten zuten. Baina urteak joan ahala, hainbat eta hainbat arribide egoera benetan tamalgarrian geratu dira eta gero eta zabalera txikiagoa izan dute. Gaur egun, artzainbide

hauk berreskuratzeko prozesua martxan dago eta zeregin hori aurrera eramateko asmoz sortu zen orain hiru urte Nafarroako Ardibideen Lagunen Elkarteak. Elkarte honek artzainbideei buruzko mapa atera berri du eta, bertan ikus daitekeenez, Nafarroa goitik behera arribideek zeharkatzen dute. Hain zuzen ere, Nafarroako lurraldearen % 0,5 arribideak dira eta estatuan kopuru hori % lekkoa da.

Artzainbideen funtzionamendua ere urteetan zehar aldatu egin da. Antzina, herri lurrak ziren, zenbait herritatik pasatzean ordaindu egin behar zuten artzainek. Ramon Compainsek aspaldi ez du halakorik ikusten baina leku gutxi batzuetan, hala ere, ohitura horiek bizirik dirau, Zangozan besteak beste. Arribide gehienak egoera kaxkarrean daude, eta beste batzuk guztiz desagertu dira. Madrilgo La Castellana pasealekua, adibidez, arribidea da eta Iruñea zeharkatzen duten errepideak dauden lekuan ere arribide bat zegoen.

Artzainen lekualdaketa hauek, hala ere, ez dira soilik Erronkari edo Zaraitzun izaten. Bailara hauetatik eta Urraulgoitik Erribera eta Bardeetara jaisten dira negua pasatzeko. Bestalde, Erribera aldeko artzain batzuk ere Andia aldera igotzen dira uda pasatzera. Leku aldaketa hauetaz gain, Aezkoa, Luzaide eta Auritzetik Nafarroa Beherera joaten dira artzainak neguan eta Araitzeko bailaratik Gipuzkoako kostaldera.

**HISTORIAN ZEHARKO EGOERA**

Artzain hauek zeharkatzen dituzten arribide guztien egoera, noski, ez da berdina. Nafarroako Ardibideen Lagunen Elkartearen arabera, egoera ho-

nek zerikusi zuzena du historian zehar artzainak eta abeltzainak izandako indarraren arabera. Garai batean, abeltzaintza zen ekonomiaren ardatza eta arribideak erabat bizirik zeuden. Gaur egun egoera oso bestelakoa da, artzain gutxi dago eta arribide asko galdu egin da, nahiz eta legez babestuta egon.

Artzaina bera ere aldatu egin da. Antzina, artzain kategoria ezberdinak zeuden eta mailaketa zorrotza zegoen beraien artean. Mailarik apalenean errepatana zegoen, hamabi bat urteko mutirenez, zenbait herritatik pasatzean ordaindu egin behar zuten artzainak. Ondoren, artzainak zeuden, artalde zaintzen zutenak. Hauen gaineratik administrazio kontuak arduratzen zena kokatzen zen eta guztien gaineratik, berriz, ardien jabea. Mailaketa hau edozein zereginetan errespetatu egin behar zen. Bazkaltzeko orduan, arribideak, administrazioak jaten zuten lehenbizi eta besteak hark baino azkarrago ezin zuten jan.

Horrelako kontuak desagertu egin dira baina artzainak dauden herrietan euren eragina nabaria da. Ardibideen Lagunen Elkarteak kideen arabera, arribideak, euskara galtzearen arrazoi bat izan daiteke artzainen lekualdaketa ugariak. Izan ere, benetako giza arazoa ziren lekualdaketa hauek elkarteko kideen arabera. «Otsagin euskara mintzatzen zen lehen, baina haurrak, hamabi urterekin artzain lanean hasten zirenean etxetik kanpo, Bardeetan, bederatzi hilabete igarotzen zituztenez, euskara ahaztu egiten zuten, pixkanaka galduz».

Artzainen lekualdaketek, beraz, badute zerikusirik herri baten eguneroko bizimoduan.





XAKEAN



'Iruñeko Hiria' xake torneo itxiko seigarren jardunaldietako partida, 1994ko urtarrilaren 2an jokatu.

Jean Luc Seret, 2.450 ELOkoa (Frantzia) — Jesus de la Villa, 2.440 ELOkoa (Euskal Herria).  
1) d4, f5; 2) Zc3, Zf6; 3) Ag5, d5; 4) Af6; E-f6; 5) e3, Ae6; 6) Ad4, Zc6; 7) gZ-e2; Dd7; 8) a3, Ze7; 9) Zf4, Af7; 10) 0-0, 0-0-0.

Aurkariaren erregearen bila, lasterketa hastera doa. Beltzen garapena, ordea, ez dirudi egokiena. Alfilek eta zaldunak ez dute pieza txurien mugikortasuna.

11) b4, h5; 12) Ae2.  
Txuriek ez dute burua galdu. Zaldiarentzat gorde dute 'd3-ko' laukia.

12)...., g5; 13) Zd3, Zg6; 14) Zc5, Ac5.

Erabaki ausarta. Arriskurik bazen, baina horrela areagotu egin da.

15) b-c5, f4; 16) Gb1, dG-e8.  
Beltzak itsu daude. Jokaldi honenkin datorkiena ez dute somatu ere egin.

17) Ab5, c6; 18) Aa6.  
Ikus koadroa. Jokaldi bikaina! Beltzek ez dute ihesbiderik, eta txuriak ohartu dira horretaz.

18)...., a6; 19) Dd3, Ed8; 20) Da6, Dc8; 21) Gb7, Ge7; 22) fG-b1, Gb7; 23) Gb7, Ze7; 24) Da7, De6; 25) Db8 xa, Zc8; 26) Dc7 xa, Ee8; 27) Gb8.

Txuriak oso zorrotzak izan dira. Beltzak gaintituak daude, erabat.


27)...., Ef8; 28) Dc8 xa, Dc8; 29) Gc8 xa, Ae8; 30) e4.  
Beltzek etsi zuten. Txurien jipoi itzela. Garapena, zaindu beharreko ikasgaia, beraz.

## Oiloaren kanta

**A**itziberren autoa baserriko lehiotik argi ikusten zen. Malko txikiak ateratzen zitzaizkidan begietatik, nire alabarekin hirira joan behar nuela pentsatzen nuenean.

Baserrian beti bizi izan eta zibilizazioaren mundura joan beharrak goibel jartzen ninduen. Emaztea hil berria nuen eta ni bezalako agure batek ez zezakeen etxeak bakarrik ezer egin.

Aitziber iritsi zenerako dena prest ze-



Izaskun Pitillas

(BARAÑAIN)

zen, baina egunero jai bat antolatzen zuen. Hiru aste jarraian igaro nituen etxean, kalea ikusi gabe eta oso aspertuta. Aitziber egunero auzotar bat ekartzen zuen nirekin egotera, baina ez nuen gustokoa. Oso garaiz esnatzen nintzen eguntentia ikusteko baina ez zen mendietakoa bezalakoa, kea bakarrik ikusten nuen.

Poliki-poliki egoera hau okertzen joan zen eta hain goibel nengoenez gaixorik jarri nintzen. Aste bat igaro nuen ospitaleko behatokian eta medikuak esan zenez nire arazoa gogaitasuna zen eta hau



goen: liburuak, baserriko gazta, arropa...Bakarrik ni falta nintzen, jakina, ezin nituen utzi zelai berdeak, txoriak eta batez ere mendiko eguntentia. Gogorra zen, baina onartu behar nuen, Aitziberren autoan igo eta piskanaka nire oroi-penak desagertzen joan ziren.

Hirira iritsi nintzenezan ikusi nituen

lehen tresnak autoak izan ziren, hauetako pila bat zegoen eta guztiak turuta jotzen zuten. «Ardiek ostos ikustean sortarazten duten iskanbila dirudi», pentsatu nuen nire baitan.

Nire alabaren etxea nirea baino askoz ere dotoreagoa zen eta tresneria mekaniko ugari zuen. Nire alaba bakarrik bizi

bihotzera pasa zela. Denbora gutxi gertatzen zitzaidan eta medikuaren ustez baserrira eraman behar ninduten. Egoera oso larrian eraman ninduten, baina dena konpondu zen; esnatzerakoan eta oiloaren kanta entzutean baserrian nengoela jabetu nintzen eta honek bihotza bere lekuan jarri zuen.

JUANTXO URDIROZ



Andres Astiz Oderiz  
Goldaratzen jaio zen  
1863.eko

garagarrilean.  
Bidaurretan eskolatua,  
hemezortzi seme-  
alaba izan zituen.

Hona hemen berak eginiko ipuin bat:

«Atorra bakar bat zuen Juan Migelek. Egun euritsu batean busti zitzaion eta ohatzerakoan laratzen jarri zuen. Hurrengo goizean erreta aurkitu zuen. Andre Mariaren eguna zen, eta elizara joateko, emaztea bere adiskide batengana atorraren bila bidali zuen.

— Bat bakarra dut eta hura soinean daukat erantzun zuen adiskide onek.

— Juan Migel: atorra gabe joan behar izango duk meztara.

— ¿Ez al din eman astakai-kuak?

— Bat bakarra duela eta hura soinean daukala esan dit.

— ¡A ze pulamentuko gizona, atorra bakarrez dagoena!— esan zuen orduan Juan Migel atorra gabeak».

Eta bertso bat bukatzeko:  
*Aitona zaharra negarrez dago semeak diruk galduta, etxeko andre nekez beterik barrendik oso ahulduta; senarra berriz beti parrandan bere lagunak hartuta, gobernadore balitz bezala zaldi beltzean jarrita: baita ondatu egiten dira baztar guziak galduta.*

Principe de Viana erakundeak 1960. urtean 'Goldarazko bertsolariaren kontu eta bersoak' argitaratu zuen, Francisco Astiz aitaren ardurapean.

## Goldarazko bertsolaria

«Ipuin batzuen bealdean amabi aldiz Astiz baten izena irakurriko duzu. Goldaratz (Nafarroako basairritxo bat da, Imotz ibarrean) Goldaraz-ko semea zan. Larraunen yakingai bila nenbilela, arraiketa eder-rak, batez ere Baraibar ta Iribasen eginda gero, ibar aren ondoko goialde batean, Lata-sara bidean, Goldaratz deritzaion irixko artan ipuiak ugari zekizan gizon bat bizi zala esan zidaten, emezortzi semealaben aita.

Gora ta gora, igo ta igo, ta an idoro nuen Astiz umetsu ta ipuintsua.

Astiro, inork baino astiroago, zekien berak buruan zituenak edasten eta, nik, itzez itz, erraz artzen nitien guztiak».

Andres Astiz Oderiz, Goldaratzen jaio zen 1863.eko garagarriaren lehenengo egunean. Bidaurretan eskolatua. Osotara hemezortzi seme-alaba izan zituen. Baraibarreko senide batek Andres Astiz zenu eta bere semeari esan zion: «Zure aitak gure etxera etortzen utzi zuanetik akitu ziren gure jaiak». Bertsolari barentzat ez dago hori baino merre-zimenduzko hitz ederragorik.

**I**kasturtea normaltasunez hasi badute ere, egoera larrian daude Iruñeko Udal Ikastolako irakasleak. Sare publikoan sartzeko asmoarekin, Gobernuak zailtasunak ezarri dizkie eta orain, Iruñeko Udalak beste kontratatu guztiei eskaintako funtzionaritzak ukatu egin die. Gauzak elkarrizketaren bidez konpontzen saiatuko dira, baina ez badute deus lortzen mobilizazioak hasiko dituzte, greba baztertu gabe.

## Udal Ikastolako irakasleak larri

T. SATRUSTEGI / IRUÑEA

Iruñeko Udal Ikastolako irakasleek larri ikusten dute beren egoera, eta ez da gutxiagorako. Martxan daramatzaten hamaizpi urte hauetan hamaika arazo izan dituzte, mota guztietakoak, baina proiektua ahuldu beharrean sendotu egin da, matrikulazioetan ikusten den moduan. Amaiur, Hegoalde eta Axular ikastoletan 1.455 ikasleek hasi dute ikasturtea aste honetan.

Irakasleak, ordea, kezkatuta daude. «Publikotasuna eskuratzeko ibilbide luzea burutu dugu. Hasieran lortutako instituzionalizazioan 'Patronato para el Fomento del Euskera' delakoaren menpeko ikastetxea zen gurea eta geroago Udal Ikastola zuzenean, garai bateko Diputazioak nahiz Hezkuntza Ministerioak ez zutelako beren gain hartu gure ikastetxea», dio Iñaki Redin Hegoalde Ikastolako irakasleak. Orain dela hiru urte, ordea, Nafarroako Gobernuak eskuratu zituen Hezkuntzako kompetentziak, eta LOGSE aplikatuz irakaskuntza guztia arautzen ari da.

Heldu den ikasturterako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) martxan jartzeko asmoa du, «ikaslararekin kontatu gabe;

eta inolako lotsarik gabe, bere aurre-plangintzan orain arteko eta gaur egungo Ikastolako 7. eta 8. mailako ikasleak Nafarroako Gobernuko ikastetxetara bideratu nahi ditu». Ikasleak bai, baina irakasleak ez, ordea, «ez baitugu aukerarik izan DBHko plazetara aurkezteko. Honek hamar lanpostu galtzea dakar».

### FUNTZIONARIZAZIO PROZESUTIK KANPO

Irakasle hau en ustez, beraien lanpostuak eta ikastolaren beraren proiektua arriskuan dago. «Udalak dioenez, hurrengo pausoa ikastola osoa Nafarroako Gobernuari transferitzea da, baina DBHren aplikazioarekin egin nahi duten bezala egiten bada, jai dugu».

Hori ez da arazo bakarra. Epe laburrean, Iruñeko Udalak bere mugagabeko kontratuei funtzionari izateko aukera eskainiko die, Udal Ikastolako irakasleak prozesu honetatik kanpo utziz.

Diskriminazio honen zergatia azaltzerakoan, transferentziarako oztipoa

izango litzatekeela aipatu zieten udaletxean, «eta gure ustez alderantziz da, funtzionariak izanik Administrazio batetik bestera pasatzeko bidea erraztu egiten delako». Lehendabizi, Gobernuak ez die aukerarik eman



Iruñeko Udal Ikastolako irakasleek hainbat arazo izan dituzte.

OSKAR MONTERO

DBHko plaza lortzeko frogetan, funtzionariak ez zirelako; orain, Udalaren kontratatu laboralak izanik, funtzionarizatzeko eskaintza ukatzen diete. «Bai Gobernuan bai Udalean guztiz bazterturik eta diskriminaturik utzi gaituzte».

### UDALAREN EZEZKO ERANTZUNA

Alde honetatik, udaleko gainerako kontratatu guztiekin batera funtzionarizatzera eta transferentziarako elkarrizketa egutegia momentu honetan zehaztu eta hastea exigitu diote Iruñeko Udalarari.

Gauzak ez dira batere errazak izanen Udal Ikastolako irakasleentzat, Santiago Cervera UP-Nko zinegotzi eta Zerbitzu Orokorren arduradunaren hitzak entzun ondoren. Cerverak adierazi zuenez, funtzionarizazioa eskatzean, «erakusten dute Ikastolaren etorkizuna baino gehiago beraien egoera pertsonala inportatzea zaiela». Haren ustez, funtzionarizazio prozesua onartezina da, «transferentzia ezinezkoa bihurtuko luke». LOGSEko zentro bat izan arte ezingo omen da. Era berean, Udal Ikastola sortzea erabaki «kaltegarria» izan zela

gaineratu zuen, «Udal batek ez baitu zertan Hezkuntzako kompetentziak asumitu».

Javier Markotegi Hezkuntza sailburuak, bestalde, transferentzia prozesua zaila dela azaldu zuen. Zailtasun nagusia legearen aldetik datorrela: «Integratuz gero, funtzionari ez diren irakasle batzuk sartuko liriteke eta beste funtzionariak salatu egin lezake egoera hori». Horri buruz, Udal Ikastolako irakasleek azaldu dute beraien integrazioak ez lukeela inolako kalterik sortuko beste funtzionarien artean, «ez baitugu inor desplazatzen».



Amaiur, Hegoalde eta Axular ikastoletan 1.455 ikasleek hasi dute ikasturtea.

JOXE LACALLE

## Elkarrizketak eta mobilizazioak

T.S. / IRUÑEA

Ikasleentzat ikasturtea arazorik gabe hasi da Udal Ikastolan, arraroa bada ere. Eta horretan segitzeko asmoa dute, «gauzak ahal den hobekien egin nahi ditugu, elkarrizketak, bilerak, modu egokiak erabiliz». Alde honetatik, sindikatuarekin eta alderdi politikoekin bildu dira, egoeraren berri izan dezaten. Hori bai, alderdi sozialistak, elkarrizketa askotan eskatu arren, ez diela erantzunik eman adierazi zuten. «deialdia egiten diegu bilera egiteko, beste guztiekin bezala». Ana Los Arcos Amaiur ikastola-

ko irakasleak azaldu zuenez.

Funtzionarizazioaren erabakia Iruñeko Udalaren pleno batean hartu behar da eta oraindik hilabeteko epea dago eskaerak egiteko. «Tarte horretan sartuak gaude eta talde guztiekin hitz egin nahi dugu, erabakia gure aldekoa izan dadin». Horrela gertatzen ez bada, kalera aterako direla azaldu zuen, «mobilizazioak hasiko ditugu, gure ustetan egoera konpontzeko unean gaudelako». Mobilizazioen artean greba egitea ez dute baztertu, kaleko beste ekintzekin batera, «gure asmoa ikasturtea normala izatea bada ere».

## «Marcos komandanteordea euskalduna al zen galdetzen ziguten Chiapasen»



Esperientzia ederra bizi izan dute bi gazteek Chiapasen.

OSCAR MONTERO

ANA UNANUE / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Mexikoko hauteskundeak amaitu zirenetik apenas entzuten den ezer Chiapasko egoeraz. Nolako giroa dago?

**AITOR KARASATORRE.**— Seguruenik mobidak izango dira, baina ez dute oihartzun handirik. Gu honantz abiatu gineanean herria altxata zegoen eta bi hautagaiak lehian zebiltzan artean. PRIkoek zioten beraien hautagaiak, Robledok, irabazi zuela eta gizarte zibilak, berriaz, Amado Avendaño PRDko hautagaia jotzen zuen garaitzat. Azken honen jarraitzaileek 'erresistentzia zibila' deitzen zutena hasi zuten, manifestaldiak eta bestelako mobilizazioekin.

**EGUNKARIA.**— Zer zioen jendeak hauteskundeen emaitzez? Iruzurrik izan zen?

**JOSEBA BERAMENDI.**— Iruzurra ez zen 1988koa bezain nabarmena izan. Justu egin zuten PRIk gehiengoari eusteko eta beste bi alderdien ordena aldatzeko behar zutena. Lehen ziren PRI nagusi, PRD bigarren eta PAN hirugarren eta

orain gelditu dira PRI lehendabizi, gero PAN eta hirugarren PRD.

**KARASATORRE.**— Baina lotsagarria izan zen. Iruzurra modu askotan egin zen. Larriena eta sofistikuena iruzur informatikoa izan da, Hauteskunde Institutu Federalak egin. Hau botoak zenbatzeaz arduratzen den erakundea da, baina ez da Gobernukoa hemen bezala, PRIkoa baizik. Horrez gain, boto sekretua ez zen errespetatzen. Han ikusten genituen nagusiak edo lur sail handien jabeak noren aldeko botoa eman behar zen esanez, mehatxuka. Guk, adibidez, bidali genuen akta bat EGUNKARIAra, non ageri zen 305 hautesle zeudela eta PRIk 605 boto zituela. Honela puztu zituzten emaitzak.

**BERAMENDI.**— Eta erroladak egiterakoan ere izan zen iruzurra. Han hauteskunde egun berean ateratzen dituzte erroldak. Orduan botoa ematera zoaz eta zerrendan agertzen ez bazara, kito.

**EGUNKARIA.**— Zer berri iristen ziren Lacandona oihantetik?

**KARASATORRE.**— Gu han geudenean ez zioten inori sartzen uzten. Esaten zuten agian lurralde guztia minatzen ariko zirela, zapatistek oso ilun ikusten baitute etorkizuna. Ziur daude borroka izango dela, baina beraiek ez dute azken hitza. Erabakia orain CND alderdiaren (Convencion Nacional Democratica) esku dago. CND osatzen dute abuztuko konbentzioan parte hartu zuten taldeen ehun ordezkari inguruk.

**BERAMENDI.**— Mexiko osoko ordezkariak dira. Konbentzioa kongresu alternatibo baten modukoa izan zen; han programa bat landu zuten eta hori Zedillori aurkeztuko diote abenduan, lehendakari karguaz jabetzen denean.

**EGUNKARIA.**— Orduan, beste altxamenduren bat badago ez da Chiapasen bakarrik izango.

**KARASATORRE.**— Hala dirudi. Hori dute beraien alde, zerbait gertatzen bada ez direla zapatistak bakarrik altxatuko, Mexiko D.F.n ere izango delako jendea borrokarako prest. Lehertzen bada Estatu osoan izango da. Kontuan izan behar

da Mexikon 50 talde armatu daudela, EZLNz gain. Ez dago jakiterik zer gertatuko den.

**EGUNKARIA.**— Urtarrilaren lehenean zapatistak altxatu zirenean ezusteko zerbait zirudien, baina agian ez zen hain bat-batekoa izan, ezta?

**KARASATORRE.**— Marcos komandanteordeak beti esan du Salinas lehendakariak bazeukala EZLNren berri, joan zen urteko maiatzean zapatisten kanpamendu bat harrapatu zuelako Armada Federalak. Armadak zapatista talde bat inguratu zuen, baina hauek ihes egin zuten eta Armadako soldaduak elkarren kontra aritu ziren oharkabean. Bi hil ziren eta txosten bat egin zuten. Zerbait prestatzen ari zirela bazekiten, beraz.

**BERAMENDI.**— Baina tartean zegoen Merkataritza Libreko Hitzarmena eta horregatik ezkutatu zuten, Estatu Batuen aurrean Mexikoren irudiari kalterik ez egiteko.

**EGUNKARIA.**— EZLN indigena da benetan?

**BERAMENDI.**— Bai. Esaten da Marcosekin batera beste bost lagun sartu zirela oihanera eta horiek dira intelektualak, sustrai politikoa ematen diotenak EZLNri. Ez da egia guatemalarrak edo euskaldunak edo beste inor dagoenik atzean. Erabat mexikarrak dira eta hamar urte eman dituzte oihanean.

**EGUNKARIA.**— Orduan Marcos ez da euskalduna.

**KARASATORRE.**— Beno, agian, gu zalantzan gelditu ginen (barrez). Chiapasko bertako kazetariak galdetzen ziguten, serio, Marcos euskalduna al zen eta guk hala uzten genuen dudu.

**EGUNKARIA.**— Zer jarrera du jende xeheak zapatistekin?

**BERAMENDI.**— Denetarik dago. Askok beldurra diete, zeren azken finean militarrek dira eta ez dira horietaz fido.

**KARASATORRE.**— Miseria gorrian daudenak eta Gobernuarekiko loturarik ez dutenak bai daude zapatisten alde.

Joseba Beramendi  
eta Aitor  
Karasatorre

IKASLEAK



SOSLATA

### Abentura bila

Joseba Beramendi (Iruñekoa, 21 urte) eta Aitor Karasatorre (Etxarri-Aranazkoa, 22 urte) abentura bila abiatu ziren iragan abuztuan Chiapas aldera. Bide batez, berriemaile gisa aritu ziren EGUNKARIArentzat eta informazioa bidali zuten zapatistek antolatutako konbentzioaz eta Mexikoko hauteskundeaz. «Hain gazte txoak izanik, asko laguntzen ziguten kazetariak, hauen artean Elizondoko Josetxo Zalduak, 'La Jornada' egunkarian nazioarteko gai ez arduratzen denak. BBCKoentzat ere beraien semetxoak bezala ginen», diote. Esperientzia gogoko izan dute eta berriz egiteko grinaz gelditu dira.

## NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

